

# Interesak eta amortizazioak

**Joseba Felix Tobar-Arbulu**  
UEUKidea eta EHUKo irakaslea

Schmitt-en teoriaren barruan interesen eta amortizazioaren arazoa ikertzen da. Interesak, errenta gisa, balioaren neurriarekin, alokairu-unitatetan, koherenteak direla erakusten da. Izatez, interes positibo baten presentziak alokairu errealak gutxitzen ditu, bono-jabeen onurarako. Amortizazioaren prozesua ere zirriborratzen da.

The problem of interest and amortization is sketched within Schmitt's theory. It will be shown that interest, as a net income, is consistent with the measure of value in wage units. In fact, the presence of a positive interest diminishes real wages to the benefit of security holders. The process of amortization is also sketched.

## 1. Sarrera

Dakikegunez, Adam Smith-en, Karl Marx-en eta John M. Keynes-en arabera, lana da produkzio-faktore bakarra. Kapitalak balioa —interes eta dibidendu gisa— produzitzen du. Zer gertatzen da, hortaz, kapitalarekin?

Schmitten teorian (1984) produkzioa bere alokairu monetarioek neurtzen dute. Errenta nazionala ez-alokairuzko errenta horiek —interesak eta dibidenduak— gehi alokairuak dira. Ez-alokairuzko errentak familien “mozkinerako” eratzen dira.

Bankuek sorturiko errenten era monetarioa beti alokairu nominala da. Ekonomia nazionala soilik alokairuek osatzen dute, banku-monetaren logikak aginduta (Schmitt, 1984; Tobar-Arbulu, 1999).

Bankuek alokairu nominalak sortzen dituzte; hortaz, bankuek ezin dituzte ez-alokairuzko errentak sortu. Beste aldetik, bankuan eraturiko edozein gordailu gizakien produkziotik sortzen da. Edozein trukek moneta inplikatzeko du eta edozein truke monetario produkzio-mailan eta kontsumo-mailan gertatzen da.

Alokairuen ordainketa lehen truke absolutua da: langileak bere produktua jasotzen du era monetarioan. Formalki ezinezkoa da familia batek truke absolutu batean —existi daitekeen truke-mota bakarrean— alokairuzko ondasunak ez diren ondasunak jasotzea. Interesak positiboak badira, beraiek “interes-ondasunen” produkzioari dagozkio; ondasun horiek ezin dira banku batek gauzaturiko errenta monetarioen emisio baten objektuak izan.

Gaur argi dago kapital makroekonomikoa makinerietan eta mota guztietako lanabesetan betiko finkaturiko errenta dela; kapital makroekonomikoan aldaturiko errentak errenta baten betiko galera definitzen du, errenta hori deuseztatua izanik. Galera horrek konpentsazio bat eskatzen du, eta, ikusiko dugunez, konpentsazio edo indemnizazio hori interesa besterik ez da.

## 2. “Produktibitate fisikoaren” printzipioa

Demagun ordubetea produzitzen duen langile bat —zeinak herrialde bateko langile guztien multzoa errepresentatzen duen—. Produkzio horrek hiru ondasun-mota hornitzen ditu: alokairu-ondasunak, interes-ondasunak eta amortizazio-ondasunak.

Suposa dezagun alokairu-ondasunak liburuak direla eta lana, printzipioz, esku-lana dela. Orduan, demagun ordubeteko lanaren produkzioa liburu bat dela. Ondoren, liburuak produzitzeko makina bat lortzen da —makina horren jatorria inbertsioen analisiak frogatzen du—. Aurrerantzean gure langileak makina horren bidez ordubetea 10 liburu ekoiztuko ditu.

Gizakiaren lanak liburu gehiago ekoizten du makina baten bidez aritzen denetik. Produktibitate fisiko hori makinaren erabileratik dator. Zer dela-eta aipatzen da produkzio fisikoa? Makinak produkzioa “balioan” —eta ez soilik bolumen fisikoan— gehitzen duela esanzen balitz, makinaren “lanak”, gizakiaren lanak bezalaxe, ondasunak produzituko lituzkeela onartuko litzateke. Orduan, produkzio-faktoreak, gutxienez, bi izanen lirateke: gizakiaren lana eta makinaren lana.

Makinen erabilerak ondasun fisikoen produkzioa biderkatzen duela esaten bada, ordea, ez da zalantzan jartzen produkzio-faktoreen definizioa: ondasun fisikoen kopuru handiagoa hornitzen duen makinaren “jarduerak” produkzio handiago bat horni dezakeen ala ez. Hori horrela balitz, makina egiazko produkzio-faktorea izanen litzateke.

### 3. Produktibitatearen kontzeptua balioan edo neurrian

Zuzena ote da esatea makinaren erabilerak ordubeteko produkzioaren neurria liburu batetik 10 liburutara igoko duela? Kasu horretan bi produkzio horien bereizketa —produkzio fisikoa eta produkzioa “balioan” edo “neurrian”— ezin justifika daiteke.

Errealitatean ongi dakigu ezen produktu nazionala ondasun heterogeneoen multzo batek osatzen duela. Hortaz, ezinezkoa da ondasun batzuk beste batzuekin erlazionatzea beraien definizio fisikoen bidez. Nola konpara daiteke fisikoki, kasu, liburu bat telebista batekin?

Ondasunak beraien artean konparagarriak izan behar dira, zeren heterogeneoak izaten segituko balute, neurri komunera murriztezinak izanik, produktu nazionala ezin izanen litzateke neurtu, eta zientzia ekonomikoa ez bailitzateke existituko.

Produkzio-faktoreak analizatzeko, ondoko galdera egin daiteke: ekoitz ote dezake makinak gizakiak bezala? Galdera horri erantzuna emateko, makina erabiltzen denetik, gizakiak produzitutako ondasunen kopuruaren biderketaren etsenplua —lehenago kopurua bider 10— proposatu dugu. Ondasunak heterogeneoak izanez gero —eta horrelakoak dira— ezin dezakegu jakin ondasunen kopuruaren gehiketa. Ekonomia nazionalerako, ondasunak homogeen bihurtzearen, produzituriko ondasun guztiak liburuak balira bezala kontabilizatzea erabat desegokia eta okerra izanen bailitzateke. Helburu horretarako dagoen neurri-unitate bakarra alokairu-unitatea da, Keynesen “*wage unit*” delakoa.

Makinen erabilerak produkzioa gehitzen du ondasunen balioan edo “neurrian”, baldin eta soilik baldin —beharrezko baldintza eta nahikoa— makinaren laguntzarekin produkzioak lorturiko produktuaren neurria gizakiaren lan soilaren produktuaren neurria baino handiagoa bada. Gure etsenpluan, ordubetearen makinaren laguntzarekiko produkzioak lorturiko 10 liburuak gizakiaren lan soilaren bidez lorturiko liburu baten produkzioa baino handiagoa da “neurrian”, baldin eta, soilik baldin, gizakiak eta makinak produzituriko 10 liburuen neurri ekonomikoa gizakiak eskulanaz produzitutako liburu baten neurri ekonomikoa baino handiagoa bada. Beraz, galdera hau da: gizakiaren eta makinaren produktuaren —10 liburu— neurria, alokairu-unitatetan, gizaki soilaren neurria —liburu bat— alokairu-unitatetan baino handiagoa al da?

Baina, zein da ondasunen neurri ekonomikoa zehatza? Erantzuna ezaguna da: alokairu-unitateak dira.

Laburbil dezagun bi produktibitateen —fisikoan eta balioan edo “neurrian”— bereizketa. Gure etsenpluan bistakoa da ordubeteko lanaren produktibitatea,

termino fisikoetan, liburu batetik hamar liburutara igarotzen dela. Baina produktibitateak kapitalaren balioan erabat irekita segitzen du, erabaki gabe: oraingo ez dakigu zein den gizakiak eta makinak ekoitziriko 10 liburuen balio edo neurria, alokairu-unitatetan.

Ikus dezagun. Langilearen orduko alokairua, kasu, 10 euro izanik, ez ote da egia langileak, inolako makinarik gabe, ekoitziriko liburua 10 euroek neurtzen dutela —10 alokairu-unitate— langileak eta makinak, batera, ekoitziriko 10 liburuen neurri zehatza?

Beraz, kapitalak ez luke inolako baliorik ekoitziko, zeren ez bailuke inongo alokairu-unitaterik hornituko. Soilik gizakiaren lanak ekoitziko lituzke alokairu-unitateak, makinaren erabilerari dagokion produkzioaren gehiketa hori fisiko hutsa izanik.

Baina “bistakoa” dena korapilotsuagoa da. Izan ere, errealitatean kapitalak ondasunen “neurri” positiboa ekoizten du; beste era batera esanda, kapitalaren produkzioa positiboa da, ez soilik termino fisikoetan, balioan ere bai:

- makina-kapitalak balio erantsia ematen du, berari dagokion interesaren neurrian, eta
- makina-kapitalak balio erantsia ematen du, bere birprodukzioaren neurrian.

#### **4. Kapitalaren produkzioa “balioan” berari dagokion interesaren neurrian**

Nola produzituko lituzke kapitalak alokairu-unitateak? Badirudi kapitalak balio bat, interes bat, hornitzen duela eta produktuaren neurria bikoitza dela: alokairuak langilearentzat eta interesa kapitalerako.

Baina logikak ezin du onartu “bikoiztasun” hori. Ondasun ekonomiko guztien —beren osotasunean— oinarritzko neurria alokairu-unitatea izanik, ondokoa ulertezina da, alegia, ondasunak, jadanik alokairutan neurtuak, berriz ere —nahiz eta parte baterako egin— neurtuak izatea beste neurri-unitate baten bidez, hots, interes-unitatetan.

Beraz, bietatik bat: kapitalaren produkzioa nulua da, edo, baldin eta positiboa bada, beraren neurria alokairu-unitatetan dago neurtuta. Ebazpena honako hau da: makinaren —*stock*-en— eraketan deuseztaturiko errenta-kopuruaren fluxu-neurria den interesen neurrian, interesa “produkzio-errenta” bat da, alokairuen tituluen antzera. Hortaz, kapitalak balio positibo bat hornitzen duela indutitzen da, hain zuzen ere interes horren formaren menpe.

Zailtasuna hauxe da: interesak alokairu-unitateko kopuru bat izan behar du. Hori horrela ez balitz, interes hori ez litzateke izanen produktuaren neurri positiboa, izatez izan behar dena. Beraz, ondokoa adierazi behar da: nola liteke kapitalak, gizakiaren lanak bezalaxe, alokairu-unitateak produzitzea?

(Oraingo, interesaren arazoari eusteko, produkzioan erabilitako makinaren amortizazioa alboan utziko dugu, nulua balitz bezala. Geroxeago ukituko dugu amortizazioaren arazo hori.)

Suposa dezagun liburuen produkzioan erabilitako kapitalak orduko interes bat hornitzen duela: ordubeteko produkzioaren %10eko proportzioan.

Ordubeteko produkzioa 10 liburu izanik, bederatzi liburu alokairutan langilearentzat banatzen dira, interesen tituludunei liburu bat dagokien bitartean. Horixe da liburutik emandako “banaketa-giltza”, hortaz, ondasun fisikoen unitatetan.

Oker bat alboratu behar da. Uste zitekeen gizakiaren ordubeteko lanak bederatzi liburu hornitzen dituela, makinak ordubetez “lan eginez” liburu bat hornitzen duen bitartean; orduan, liburuak ekoizteko, “kapital-faktorea” “lan-faktoreari” gehitu beharko litzaioke. Izatez, soilik gizakiaren lana da produktugilea edo sortzailea. Beharrezkoa da liburu guztiak —hamarrak— gizakiaren lan soilaren produktua izatea. Horrek ez du esan nahi “lan-faktoreak” interesa produzitzen duenik, interesa makinan finkaturiko errentaren prezioa delarik. Baina horrek ez du alboratzen giza lana dela “interes-ondasunak” neurtzen dituenen, “alokairu-ondasunak” neurtzen dituen bezala.

Giza lana produkzio-faktore bakarra delako adierazpen osoa honelakoxea da:

- Liburuak ekoizteko erabiltzen den amortizazioa kontuan izan ezean, interesa produkzio-errenta nulua balitz, ordubete ekoizteriko 10 liburu 10 alokairu-unitatetan neurtuko liriateke; hortaz, ordubeteko jarduerarako, langilearen alokairu erreala 10 liburukoa izanen litzateke.
- Termino fisikoetan, ordubeteko, liburu bat berdintzen duen interesa produkzio-errenta bat denez, langilearen alokairu erreala, ordubeteko jarduerarako, liburu bat murrizten da.
- Langileak “galdutako” liburuak alokairu monetarioko unitate baten balio zehatza dauka.
- Ordubete ean, langileak ondasunak ekoizten ditu —eta berak bakarrik ekoiziz, “faktore” bakar gisa—, ondasunen balioa, alokairu-unitatetan, 10 izanik. Produktuaren neurri global horretan interesak alokairu-unitate bat deduzitzeak ondokoa esan nahi du, alegia, langilearen produktuaren bederatzi hamarren berarentzat banatzen dela eta hamarren bat interesaren tituludunen onurarako.

Egin zitekeen okerraren izaera ezagutzen da. Interesa errenta nazionalaren kategoria bat da. Hortaz, uste zitekeen kapitalak ekoizti egiten duela, gizakiak, bere lanaren bidez, produzitzen duen bezala. Baina, inolako dudarik gabe, aurrekoa erabat faltsua da. Produktua zientzia ekonomikoaren objektua da soilik neurri komuna daukalako: alokairu-unitatea. Beraz, logikoki, hots, halabeharrez, interes-ondasunak ere hasierako alokairu-ondasunak dira: hori produkzioaren erabateko ondorioa da. Eta alokairu-ondasunak izateari uzten diote azkenean alokatuak ez diren errenta-tituludunengana joaten direlako. Baina produkzioaren emaitza gisa, produktua banaezina da eta osotasun bat eratzen du, alokairu-ondasunen kopuru bat definituz. Hortaz, interesaren eskubidea daukatenean alokairu-ondasunak jasotzen dituzte. Interes-ondasunak alokairu-ondasunak ez direla esateak alokatuengana joaten ez diren ondasunak direla esan nahi du.

Beraz, egiazkoa da, eta logikan beharrezkoa, kapitalak alokairu-ondasunak ekoizten dituela esatea; hobeki honelaxe esan daiteke: kapitalak ondasunak ekoizten ditu, zeintzuk —gizakiaren lanak ekoitziriko ondasunen antzera— alokairu-unitatetan neurtzen diren.

Langileak, bere eskulanez, orduko liburu bat ekoizten duenean, kapitalaren laguntzarik gabe egiten du. Berak alokairuetan bere produktuaren osotasuna jasotzen du. Aldiz, gaur egungo produkzio nazionalean, langileak “liburuak ekoizteko makinaren” bidez ekoizten du. Interesgarriena ez da ordubeteko produktua hamar liburukoa dela —oso garrantzitsua populazioaren ongizaterako— baizik eta, produktua ez dagokiola bere osotasunean langileari, zeren “kapitalistek”, legitimotasun osoz, parte bat jaso behar baitute, beraiek aurreturiko, eta definitiboki makinan “ezarria” edo “finkatua” izan den errenta konpentsatzearen. Arazoa, beraz, ondokoa da: baldintza horietan, “kapitalisten parteak” alokairu-unitatetan neurtzen ez diren ondasunak definitzen dituen ala ez jakitea. Erantzuna positiboa balitz, interesak interes-ondasunen neurria izanen lirateke eta alokairuak soilik langileari banaturiko ondasunen neurria izanen lirateke. Benetako erantzuna, aldiz, negatiboa da: nahiz eta makinaren bidez lagunduta egin, soilik gizakiak ekoizten du. Gure etsenpluan, produktua —10 liburuak— soilik langilearen jarduera ekonomikoari dagokio erabat. Kapitalak ez du ezer gehitzen. Hori horrela da, zeren produktua, baldintza guztietan, alokairu-unitatetan neurtzen baita erabat, ekonomian dagoen neurri-unitate bakarrean. Kapitalistek, beraz, alokairu-unitate batez neurturiko beren interesak jasotzen dituzte, makinaren ordubeteko jardueragatik. Alokairu-unitate hori langileak ekoitzia da —edozein alokairu-unitateren antzera— eta “kapitalaren onurarako” kentzen zaio.

Bi kasuetan orduko alokairua 10 eurokoa dela suposatu dugu. Ez ote da egia, beraz, alokairu monetarioa gehitu behar dela lanaren produktibitatearen gehiketaren proportzioan? Ezezkoa erakustea garrantzitsua da. Alokairu monetarioa jatorrizko neurria da eta ekonomian neurri bakarra da. Ilogikoa da, hortaz, alokairua bera neurtu nahi izatea eta lanaren produktuari proportzioan gehitzea. Langilearen produktibitateak beti “ordainketan” jasotzen duen alokairu-unitateen kopurua berdintzen du. Alokairu-unitatea saskia da, zeina berak barnean edukitzen duen guztiaren neurria den. 10 alokairu-unitatek liburu bat edukitzen duten kasuan, liburuak 10 balio ditu; 10 alokairu-unitatek 10 liburu edukitzen dituzteneko kasuan, liburu bakoitzak 1 balio du. Langileak modu iraunkor batez jasotzen duen alokairu-unitatean, zenbat eta produkzio fisiko handiagoa izan (makinaren bitartez), orduan eta ondasun gehiago jasotzen du. Langileak bere produktibitateak “onurak” izanik, ez dago inolako beharrik beraren orduko alokairua gehitzeko. Gainera, Keynesek adierazten duen bezala, bere *Treatise on Money* delakoan, alokairu monetarioen gehiketa inflazioa da.

Ikus dezagun beste zailtasun bat. Langileak jasotzen duen orduko alokairua 10 eurokoa da; hala ere, beraren errentaren azken gastuak ondasun fisikotan 9 liburu besterik ez dio eman eta balioan edo “neurri ekonomikoan” 9 alokairu-unitateko baliokidea. Zailtasuna hauxe da: 10 liburuen saltzeko prezioa 11,1 ( $=10 \times \frac{1}{9} \times 10$ ) alokairu-unitate besterik ezin daiteke izan, edo 10 alokairu-unitate.

Bankuek ez dute langilearen alokairua soilik emititzen, interesaren (eta, nahiz eta oraingoz ukitu ez, amortizazioarena) kontrabalioa ere jaulkitzen dute. (Makinaren amortizazioa orduko eta interesa, osotasunean, orduko produkzioaren %30 baldin bada, langilearentzat 10 alokairu-unitate jaulkiak izanik, saltzeko prezioa eta emitituriko monetaren kopurua  $10 \times 1/7 \times 10 = 14,28$  unitate dira).

Amortizazioaren kontua oraingoz kontuan hartzen ez bada, produkzioaren prezioa  $10 \times 1/9 \times 10 = 11,1$  moneta-unitate dira. Bere alokairuaren —10— gastu osoan, langileak bere produktuaren:  $10 : (1/9 \times 10) = 9$  alokairu-unitate jasotzen du.

Alokairu-unitatea oinarrizko unitatea da. Ez ote da arbitrarioa 10 alokairuaren unitateko neurriari eustea — $10 \times 1/9 \times 10 = 11,1$ — moneta-unitateko neurriari eutsi ordez? Bankuek, produktuaren “monetizaziorako” 11,1 moneta-unitate —orduko produktuaren prezio totala— sortzen dituztenez, ekonomian moneta-unitatea izanen litzateke neurriaren unitatea eta ez alokairu monetarioko unitatea. Horrela eginez gero, teoria keynestarra gaizki legoke eta monetaren teoria kuantitatiboa onartu beharko litzateke. Baina alokairu-unitateak ekonomian dagoen neurri-unitatea izaten segitzen du, ez-alokairuzko errentaren eraketa, bereziki hemen analizatzen den interesarena, lan baten erosketa gisa ikertzen denetik.

Adam Smithen gizartearen egoeren bereizketan, ekonomia nazionalaren egoera gordinen, inork ez du erosten gizakiaren inolako lanaren zatirik. Imajina daiteke enpresa baten existentzia, langilea enplegatzen duena, enpresa bitartekari soil gisa onartuz. Alokairuaren ordainketa, ordubeteko lanagatik 10 unitate, ez da erosketa bat, langileari bere produktua era monetarioan emate soila da. Langileak erosketa-bonoa jasotzen duela esan daiteke, bono horren objektua langilearen produktua izanik. Horrela oker bat alboratzen da, hots, alokairua lanaren prezioa dela onartuko lukeena; izatez, alokairua produktua da, eta are lanaren produktu erreala.

Ekonomia nazionalaren egoera garatuan, Smithi jarraitzeagatik, lana ondasun bat da, zeina partzialki langileari erosten zaion; zentzu horretan mintzatzen da Smith lan alokatuari buruz. Moneta aktibo gisa onartzen bada, kontraesan batera iristen da. Enpresak ez-alokairuzko errenten tituludunen konturako “produktzio-faktorearen” orduko lanaren %10 erosten badu, eta horretarako berak alokairu monetarioko unitate bat ordaintzen badu, produktuen merkatuan lanaren *output*-aren %10 salduko da 1 moneta-unitateko prezioan. Langileak 10 alokairu-moneta jasotzen dituenez, bere alokairuaren gastuaren kontra, bere produktuaren osotasuna eskuratzen du.

Moneta numerario soila onartzen denetik, hots, moneta erabat ez-materiala dela hartzen denetik, kontraesana ezabatu egiten da.

Demagun, hipotesi moduan, herrialde bateko moneta materiala dela —inoiz gertatu ez den hipotesia, zeren urre- edo zilar-monetak beraien materiatik independenteak izan diren monetak izan baitira—. Herrialde horretan kapitalistek interes-ondasunen produkzioa —lan-orduko liburu bat dena— enkargatzen dute. Liburu baten produkzioa eskuratzeko, liburuak ekoizteko makinaren jabeek langilearen jardueraren sei minutu (= 60/10) erosten dituzte. Lanaren ordainketan, orduko 10 alokairu-unitate direnez, langileak kapitalisten 1 alokairu-unitate jaso-

tzen du, kapitalistek 6 minutuko produktua erosten dutelarik, 6 minutuko produkzioa edo lana erositu. Hipotesi moduan, moneta materiala izanik, kontraesan batera iristen da, zeren:

- alde batetik, langileak, lan-orduko, alokairuaren 10 moneta-unitate jasotzen baititu, eta horrela bere produktu osoa —10 liburu— erosteko ahalmena baitauka; eta
- bestetik, langileak kapitalistei liburu bat eskaintzen die, zeinaren neurria edo balioa alokairu-unitate bat baita.

Bi baieztapen horiek kontraesan bat osatzen dute, zeren alokairu erreala ezin baitaiteke izan aldi berean 10 liburukoa eta 9 liburukoa. Kontraesan hori gaindi daiteke, Keynesi jarraituz, neurriaren unitatetzat alokairu-unitatea onartzen bada. Ikus dezagun logika berri hau.

Orduko alokairua 10 moneta-unitate direla onartzen da. Alokairu horren magnitudea lanaren ordu baten zatia kapitalistek —aurreztaileek— erosten duten kasuan aldatu egiten da. Gure etsenpluan, errenta nazionalaren interesaren parte %10 da. Kasu horretan, langileak bere jardueraren hamarrena saltzen die aurreztaileei. Ordubeteko jardueraren beste bederatzi hamarrenei dagokionez, langileak ez dio ezer inori saldu. Berria dena ez da langileak bere jardueraren zati bat saltzen duela, baizik eta alokairu erreala ematen dion bere jardueraren zati osoa ez diola inori saltzen. Ekonomialari klasikoen arabera, langileak bere jardueraren osotasuna saltzen du. Horrela ikusten dute klasikoen alokatuen sistema. Errealitatean, alta, langileak ez-alokairuzko errenten eraketaren neurrian saltzen du bere jarduera. Alokairuen eraketari dagokionez, langileak ez dio inori bere jarduera saltzen.

Aurreztaileek lanaren 6 minutu erosten dituzte, langileak orduko bere jardueraren 54 minutu osagarriak inori saltzen ez dizkion bitartean. Arazoa hau da: lana sortzailea da 60 minuturen neurrian edo soilik 54 minututan? Badirudi erosketak transmisioak direla eta ez sormenak. Baina emaitza zuzenaren arabera, lana kreatora da berak irauten duen denbora-tarte osoan. Funtsean, aurreztaileek ez dute 6 minutuko lana erosten, 6 minutuko lanaren produktu soilik baizik. Beraz, “lan baten erosketa” esaten denean, logikoki “lan baten produktuaren erosketa” ulertu behar da.

Lana sortzailea da, gertaera makroekonomikoa da. Zein zentzutan da sortzailea lana? Berak alokairuak sortzen ditu. Alokairuen sormenaren kontzeptua unibokoa da: jadanik existitzen den beste alokairu baten gastutik inongo alokairurik eratzten ez dela esan nahi du, ezta beste errenta baten gastutik ere. Beraz, berez ezin da esan lana erositu dela. Beraiei zor zaizkien interesak direla-eta, aurreztaileek ez dute inolako lanik erosten, lan baten produktua baizik.

Schmitten monetaren teoria berriak ekonomia nazionalan ez-alokairuzko errenten, eta bereziki interes netoen eraketa ulertzea ahalbideratzen du. Definizioz, ez-alokairuzko errentak ez dagozkio inongo produkzio-kosturi. Kasurako, produkzioan inbertituriko aurrezkiari dagokion interesa ez da produkzio makroekonomikoaren kostu bat. Ikusi dugunez, interesa kapital instrumentalak —makinak— hornituriko lanaren produktibitatearen gehiketan deduziturik dago. Produkzio-kostuen ordainketak alokairuen eraketa definitzen du, alokairuak denbora-tarte



guztietan produkzio nazionalaren osotasunera hedatzen direlarik. Ez-alokairuzko errenten eraketa ezinezkoa izanen litzateke baldin eta moneta ez balitz izanen produktuaren era numerarioa.

Ikus dezagun hori gure etsenpluan. Ordubeteko produkzioagatik, langileak alokairuan 10 moneta-unitate eskuratzen ditu. 10 moneta-unitateko alokairua produktu nazionalaren osotasunaren neurri numerikoa da, Adan Smithen ekonomia gordinean zein garatuan: 10 moneta-unitate horietan ez dute eraginik ez lurren jabetzeak ezta kapitalaren metaketak ere.

Nola esan daiteke langileak produktuaren osotasuna eskuratzen duela, produktuaren hamarrena aurreztaileengana joaten bada? Ez ote da kontraesankorra esatea alde batetik alokairu numerarioa produktu osoak edukitzen duen forma dela, eta bestetik onartzea produktuaren zati batek alokatuei ihes egiten diela? Kontraesan hori gainditzeko, modu bat besterik ez dago: errenta nazionala eratzen duten gastuak eta errenta hori deuseztatzen dutenak zeinu algebraikoen bidez bereiztea. Oinarrizko bereizketa hori Schmitten teoria monetario berriak (Schmitt, 1996) ematen du; ohiko teoriak, aldiz, gastu-mota bat besterik ez dute ezagutzen, alegia, erosleen aktibo monetario positibo baten igarotzea saltzaileengana.

Mundu errealean, aldiz, kontrako zeinuko bi gastu-mota daude: alokairuen ordainketak aktibo monetarioak sortzen ditu, eta produktuaren salmentak beraiek deuseztatzen ditu (aktibo finantzarioa sortuz). Ez-alokairuzko errenten eraketa horrela adieraz daiteke: alokairu-unitate batek neurtutako interes bat aurreztaileek unitate horretan edukitako produktua erosten duten aldiunean bertan, alegia, langileari alokairu-unitate bat ordaindutakoan.

Moneta teoria berria teoria kuantitatiboa baino askoz egokiagoa da, zeren berak monetaren erosteko ahalmena eratzen duten gastuak, eta ahalmen hori usatzen, erabiltzen eta deuseztatzen duten gastuak bereizten baititu. Gogora dezagun ezen erosteko ahalmena deuseztatzen duten gastuak gastu errealak eta positiboak direla: gastu positiboak dira. Erosteko ahalmena sortzen duten gastuak, ordea, gastu negatiboak dira. Analisisiak gastu negatiboetan sorturiko gastu positiboen existentzia bereizten du: lan alokatua erosteko ahalmenaren gastu bat da, langileen ordainketaren formaren menpe. Interes-ondasunak ekoiztiak izatearren, nahikoa eta beharrezkoa da langileak alokairu bat jaso dezan, alokairu horren edukia aurreztaileek jasotzen dutelarik. Gure etsenpluan, interes-ondasunen produkzio alokatua orduko lanaren %10 da. Horrela, langileak 9 alokairu-unitateko ordainketa jasotzen du, eta produktu korrespondentea —alokairu monetario horietan edukitako 9 liburu— eskuratzen du. Baina, beraren ordainketaren osagarriarako —1 alokairu-unitate—, langileak moneta-kopuru horretan edukitako liburu egiaz eskuratzen du, baina berehala aurreztaileei ematen die, zeintzuek produktugileari bera erosten baitiote alokairu-unitate baten ordainketan bertan.

Ohiko teorien arabera, aldi berean ezin da gastu bat baino gehiago izan, eta beraren kopuruaren osotasunerako izango da, zerbitzu produktugileen merkatuan eta produktuen merkatuan. Beraz, errealitate ekonomikoaren parte garrantzitsu batek teoria horiei ihes egiten die, zerbitzu produktugileen ordainketak ez diren errenten eraketa adierazteko gai ez diren teoriak. Teoria berriak (Schmitt, 1996) errenta guztietara hedatzen du bere adierazpenen arloa, produkzio-kostuetatik sorturiko errentetara mugatu ordez.

Ikus dezagun orain produkzio-faktoreen —edo, are sinpleago, alokairuen gastuen— merkatuaren gainean gauzaturiko gastuen analisi orokorra:

- Alokairu baten edozein ordainketak, alokairu horri dagokion langilearen produktua langileak jasotzen dituen moneta-unitateetan gordailatzen du.
- Ez-alokairuzko errentarik izan ezean —Smithen egoera gordinen bezalaxe— produktuak alokairu monetariotan gordailatuta egoten segitzen du eta soilik azken erosketan da askatua. Orduan alokairu monetarioak alokairu errealetan transformatzen dira baliokidetzat estu batean.
- Ez-alokairuzko errenta bat agertzen denean, egiaztatu egiten da, izan ere, errenta horren neurri zehatzean, alokairuen ordainketak alokatuaren produktuaren bat-bateko erosketat definitzen du. Interesa da ezagutzen dugun ez-alokairuzko lehen errenta: lanaren ordubeteko produktuan dagoen interesaren partea %10 izanik, eta gordailaturiko alokairuak 10 unitate izanik, langileak aurreztaileei —liburuak produzitzeko makinaren tituludunei— bere orduko produktuaren %10 eskaintzen die.

Liburu baten eskaintza fisiko hori eta balio bereko alokairu-unitate bat eskaintzea, interesean aldatua, produkzio-faktoreen merkatuaren gainean gauzatzen da: ez-alokairuzko errenten neurrian, langileak eskuraturiko ordainketa aldi berean da bere produktuaren monetizazio bat —beti gertatzen den bezala— eta beraren produktuaren parte baten erosketat. Gure etsenpluan, langileak jardueraren ordu batengatik 10 alokairu-unitate eskuratzen ditu. 9 alokairu-unitateri dagokienez, ordainketa hori produktuaren erosketat nulua da. Baina alokairu-unitate baten balioko produktu bat erosi zaio langileari beraren alokairu osagarriaren ordainketan.

- Aipatu dugun emaitza sormen monetario baten bidez lortzen da. Izan ere, bankuek errenta nominal guztiak sortzen dituzte, ez soilik alokairuak. Langilea enplegatzen duen enpresak bere bankuari  $1,1 (= 10 / 9)$  moneta-unitate makinaren jabeei emateko eskatzen dio. Guzтира, errenta monetarioen sormena honelakoxea da: 10 alokairu-unitate eta  $1,1$  interes-unitate.

$1,1$  moneta-unitateko interesak alokairu-unitate baten balio zehatza daukala demostratzen da, eta 10 moneta-unitateko alokairuek 9 alokairu-unitateko balio zehatza dauzkatela. Izan ere, lan-orduaren produktu totalaren balioa 10 alokairu-unitatekoa da; produktu hori honela banatzen da: bederatzi hamarren langileari eta beraren osagarriarako, hamarren bat, kapitalistei, makinaren jabeei.

Parteen kalkulua, balioan, erraza da: langileak produktuaren bederatzi hamarren eskuratzen ditu, hau da, 9 alokairu-unitateko balio erreala; aurreztaileek alokairu-unitate bateko balio erreala eskuratzen dute. Badirudi produktuaren prezioa — $11,1$  moneta-unitate— beraren balioa —10 alokairu-moneta— baino handiagoa dela. Baina errealitatean, erakutsi dugun moduan,  $1,1$  moneta-unitateko interesa produkzio-faktoreen merkatuan gastaturikoa da, alokairu-unitate baten ordainketan, alokairu horrek moneta-unitate bat —eta ez  $1,1$ — berdintzen duelarik.

- Beraz, produktuaren prezioaren eta balioaren baliokidetza analizatu behar da ildo horretatik. Alokairu-unitate baten erosteko ahalmena alokairuen ordaintetan gastatzeko, nahikoa eta beharrezkoa da bankuek 11,1 moneta-unitateko errenta totala sor dezaten 10 alokairu-unitateko balioaren produktiorako. Orduan faktoreen merkatuaren gaineko gastuak 10 alokairu-unitate direla egiaztatzen da; hortaz, unitate batek produktu baliokidea erosten du. Inongo aldiunetan ez dago inolako desberdintasunik prezioaren eta balioaren artean; ez da soilik prezioen baturak balioen batura berdintzen duela, prezio bakoitzak balio korrespondentea berdintzen duela baizik.
- Ohiko teoria kuantitatiboaren arabera, moneta-unitate batek batzuetan zirkula dezake. Analogikoki, errenta-unitate edo alokairu-unitate berbera behin baino gehiagotan presente egon daiteke. Gure etsenpluan, 10 alokairu-unitate 1,1 bider daude presente. Okerra litzateke errentak 11 moneta-unitate berdintzen dituela deduzitzea: errentak 10 alokairu-moneta berdintzen ditu modu estu batez.

Segi dezagun liburuak ekoizteko makinaren amortizazioa kontuan hartzeko.

### **5. Kapitalaren produkzioa “balioan” berari dagozkion interesaren eta amortizazioaren neurrian**

Demagun kapitala produkzioko 5 “denbora-tartean” amortizatzen dela, hots, 5 ordutan. Hortaz, kapitalak —lanaren produktibitatea (liburutan) 10 bider gehitzen duena— bereari eustearren, 10 liburuko orduko produkzioaren bostena deskontatu behar duela. Ondorio nagusia hau da, alegia, 7 liburu 10 alokairu-unitatek neurtzen dituztela. Kapitalak amortizazioa jasoko ez balu (bere higadura eta zaharkitzea dela-eta) eta interes nulukoa balitz, 10 libururen balioa 10 alokairu-unitatekoa izanen litzateke. Orduko interesaren tasa produktuaren %10 denez eta amortizazioaren tasa produkzioaren %20 denez, 3 liburu —liburu bat interesari dagokiona et bi amortizazioa dela kausa— alboratu behar dira lanaren produkzioa definitzearen: lan-ordu batek 7 liburu ekoizten ditu. Eman ditzagun emaitza horiek balio-unitatetan: ordubetea ekoiztiko balioa 10 alokairu-unitatekoa da; liburu bakoitzaren balioa 10/7 alokairu-unitatekoa da. Interesean “ordaindutako” liburuak, beste edozein liburuk bezalaxe, 10/7 alokairu-unitate balio ditu. Bankuek sortzen duten moneta-kopurua, produkzioa monetizatzearen eta beraren banaketa alokairu errealean, amortizazioetan eta interesetan ahalbidezeko, 14,28 unitate dira ( $= 10 \times 10/7$ ). Alokairuek, horrela, beren produktua  $10/1,428$  proportzioan lortzen dituzte, hots, 7 alokairu-unitateko neurrian, ( $10 : (10/7) = 7$ ); 3 alokairu-unitate osagarriak amortizazioetan eta interesetan banaturiko produktuaren neurria da.

Orduko produkzioa 12 liburukoa izan beharko litzateke. Izan ere, eragiketa hori bikoitza da, positiboa eta negatiboa batera. Aipaturiko baldintzetan, gizakiaren orduko produkzioa 10 liburukoa da; produktu horren gainean interesak hamarrena deduzitzen du. Beste aldetik, produktu horretatik bostena deduzitzen du amortizazioak. Higaduragatik eta atzerapen teknologikoagatik, kapitalak produktu korronteari bere balioaren bostena hartzen badio, hori gertatzen da langileak beretzako ondasunak (kontsumokoak) produzitzen dituelako, interes-tituludunentzako onda-

sunak (kontsumokoak ere) eta, azkenik, makina berriaren parteak produkzioan erabilitako makina ordezkatzeko; gure etsenpluan langileak bere jardueraren bostena makinaren birproduktoria dedikatzen du, makina horren bidez langileak 10 liburu ekoizten ditu ordubetea. Hori guztia zuzena da. Baina egiaztapen osagarri bat dago: makinak bere amortizaziorako makinak berak produktu totalari gehitzen dion produktua besterik ez du berrartzen. Ekonomialari guztiek dakite makinaren amortizazioa eragiketa neutroa dela, produktu korronteari ezer kentzen edo gehitzen ez diona. Orain arte, gure analisisan kapitalak bere helburuetarako mobilizatzen duen produkzioaren parte hartu dugu kontuan, kapitalak bere burua birproduzitzeko. Analisia egoera horretan erabat burutua izan balitz, horrek kapitalaren amortizazioak produkzio netoaren zati bat eskuratuko lukeela esan nahiko luke, eta ez da egia. Analisia burutzeko, amortizazioaren eskuratzea konpentsatu behar da berdina den gehiketa baten bidez: beraz, gure etsenpluan ondokoa egiaztatzen da, alegia, orduko produktua 12 liburukoa dela, eta ez 10 liburukoa. Amortizazioa 2 liburu osagarri hornitzen dituen eragiketa da, kapitalaren birkonponketarako produkzioa kontuan edukitzearen.

Segi dezagun orduko produkzioaren gehiketa hori —10 liburutatik 12 liburutara— adierazten. Ongi ulertzen da produkzio netoa hartzen denean, hipotesi gisa, 10 liburukoa besterik ez dela. Ez da kontua produkzio hori 12 liburutara eramatea. Hori ilogikoa izanen litzateke, zeren amortizazioa baita produkzioari 2 liburu gehitzen dizkiona. Amortizazioa eragiketa positiboa eta “negatiboa” da aldi berean: fluxu soil eta bakar batean amortizazioak makinarako eta beronen birkonponketarako orduko produktuari gehitzen dizkion 2 liburuak berrartzen ditu. Une bakoitzean produktu netoa ez da, beraz, 12 liburukoa; amortizazioaren kontu-hartzeak 10 liburuko produktu korronteari + 2 eta - 2 liburu batera gehitzen direla esan nahi du.

Hemen dago amortizazioa eta interesa bereizten dituen desberdintasun garrantzitsua: egia da balioan, interesa, produkzio-errenta bat, errenta nazionalaren parte bat dela. Interesa, beraz, produktuaren balio netoan sartzen da. Amortizazioa, ordea, ez da produktu netoaren zati bat. Azken analisisan, errenta nazionalen langileen kopurua ez du amortizazioak gutxitzen; gure langileak bere produktuaren zazpi hamarren besterik jasotzen ez dituela dioen analisia ez dago burututa; aitzitik, berak produktuaren bederatzi hamarren jasotzen ditu, interesak hamarrena eskuratzen duela ikusita. Eraitza horrek amortizazioa eragiketa “positiboa” ere badela kontuan hartzen du: kapitalak bere iraupenerako eskuratzen duena hornitzen du.

Gertakariak honelakoak dira: kapitalaren erabilerak ordubetea 10 liburuko produkzioa ahalbidetzen du, liburu soil baten ordezkari. Produkzio horretan kapitala gutxitu egiten da eta bere lehengo maila lortu behar du: horixe da amortizazioa, bere bi zentzutan. Bera gutxitzen den neurrian, kapitalak bere balioa galtzen du, eta berreskuratu egin behar da kontsumo-ondasunetan, liburuetan. Gure kasuan, kapitalak bere balioaren bostena galtzen du ordubeteko produkzioan: termino fisikoetan kapitalak 2 liburuko balioa galtzen duela esan nahi du horrek. Beraz, hona hemen bi egiaztapen, bata bestetik bereizi behar direnak:

- a. kapitalaren bidez produkzioak 10 liburu hornitzen du ordubetea, liburu soil baten ordezkari; eta

b. kapitala gutxitzeak produkzio horri bi liburu gehitzen dizkio; hortaz, osotasunean, 12 liburukoa da produkzioa hori.

Ilogikoa izanen litzateke lan-orduko produkzio netoa 12 liburukoa dela deduzitzea: soilik 10 liburukoa da, behin eta berriz errepikatu dugun moduan.

Hala ere, 10 liburuko produkzioan kapitala, 2 liburuko balioa deduzituz, berregituratzen dela ustea ere okerra izanen litzateke. Errealitatean 12 liburuetan 2 liburu deduzituz berrosatzen da kapitala. Beste era batera esanda, kapitalak, berak galdu duen 2 liburuko balioan ere, berrartzen du, ondasun horiek produktu netoan sartzeko denborarik izan gabe.

Azkenik, ikus dezagun produktuaren banaketa osatzen duten parteen kalkulua. Langileak 10 alokairu-unitate jasotzen ditu, zeintzuen erosteko ahalmen totala 9 liburukoa baita. Aurreztaileek —liburuak ekoizteko makinak— liburu bat erosteko ahalmena eskuratzen dute. Banaketa hori produkzio-faktoreen merkatuaren gainean gauzatzen da: aurreztaileek alokairu-unitate bat ordaintzen dute, beraz, langilearen ordainketaren hamarrena, eta fluxu horretan alokatuaren produktua, alokairu baten neurrian, erosten dute. Horrek ondokoa esan nahi du, alegia, produktu totalaren prezioa  $11,1 (= 10 + 10/9)$  moneta-unitatekoa dela.  $11,1$  moneta-unitateko kopuru horretatik, langileak 10 moneta-unitate alokairuetan jasotzen ditu eta aurreztaileek 1,  $1 (= 10/9)$  moneta-unitate interesetan lortzen dituzte. Produktuen merkatuan analizaturik, produkzio-faktoreen merkatutik independentea den merkatuan, moneta-kopuru horien gastuek langileari 9 alokairu-unitateren neurriko produktua hornitzen diote eta aurreztaileei 1 alokairu-unitateren neurriko produktua.

Laburbilduz, enpresei maileguz emandako kapitala ondasun instrumentalaren produkzio berrian inbertitzen da eta kapital finko bihurtu. Schmitten arabera, kapital finko hori era atzeraezin batez galtzen dute errenten tituludunek. Kapital finkoaren metaketa interes positiboan jatorria da, interes horiek errenten tituludunek jasotako «errenta mailegatuaren eta kapital gisa errenta galduaren konpentsazio» (1984: 562) bilakatzen dira.

Alde batetik interesen jatorria errenta makroekonomikoa da; bestetik, errenta nazionala alokairuek osatzen dute erabat. Ez ote dago inolako kontraesanik aurreko bi baieztapenen artean?

Badakigu alokairuak direla *output*-aren balio osoa. Kapital-ondasunek produktibitate fisikoa gehitzen dute, baina balioa ez da gehitua. Interesak alokairu nominaletan sarturik daude, baina errenta osoaren neurrian alokairu errealek eta interesak osagarriak dira. Langileen jardueraren parte bat berek jasotzen dute eta beste parte bat kapitalaren jabeek. Interes positibo baten presentziak alokairu errealek gutxitzen ditu, bono-jabeen onurarako.

Atzeranzko eragina dela-eta, *output* korrontearen azken erosketak errenta korrontearen eraketa aldatzen du. Interes positibo baten gastua produkzio-faktoreen merkatuan gauzatzen den interes-ondasunen erosketa modura interpretatzen da. Alokairuak ordainduak direneko aldiunetik beretik, langileek produzitutako ondasunen parte bat erosten dute kapital-jabeek. «Interesa positiboa denez,  $x$  alokairu-unitateko emisioak interes-ondasunen erosketa bat,  $y$  berdintzen duena,

dauka barnean, aurreztaileen aldetik» (Schmitt, 1984: 563). Horrela, interesak alokairuetan sarturik daude, alokairu errealeko kopurua gutxitzen duen gastu gisa.

Ondasun-merkatuan eta produkzio-faktoreen merkatuan batera presente egonik, interesa errenta neto modura adieraz daiteke, nahiz eta produkzio-faktoreen inolako ordainketari ez dagokion.

Interesak ondasun-merkatuan mugaturik baleude, ez lukete ezein teoria ekonomiko adieraziko. Errentak produkzio-faktoreen merkatuan sartzen dira, eta bertan interesak eratu behar dira, baldin eta beraiek errenta netoa definitzen badute.

Kapitala ez denez produkzio-faktorea, interesa *output* korrontea saltzen den aldiunean bertan eratzten da, eta ez *output*-a produzitzen denean. Nola bateratzen ditu Schmittek bi egiaztapen kontraesankor horiek?

Izatez, erosketa eta produkzioa denbora kuantikoan batera gertatzen direnez, errentaren gastu positibo bat alokairuen ordainketaren barruan gauzatu daiteke. Interesa produkzio-merkatuan gauzaten den alokairuen ordainketan gastatzen denez, langileen jarduerak interes-ondasunen kopuru positiboa sortzen du, eta hori dela kausa, interesa, izatez, errenta netoa da.

Schmitten zientzia ekonomikoaren moneta-teoriak dioenez, denbora jarraituan geroko data batean gertatzen denak —*output* korrontearen azken erosketa— lehenago gertatu dena —alokairuen ordainketa— alda dezake. Horixe da, hain zuzen ere, interesaren kasuan gertatzen dena. Kapitalaren mailegu-emaleei interesa ordaintzen zaienean, hasierako alokairuen ordainketaren emaitza berrinterpretatu behar da. Alokairu-ondasunen produkzio gisa agertzen den alokairu-ondasunen eta interes-ondasunen produkzioa da.

Amortizazioari edo makinaren kontserbazioari dagokion produktuaren parte adieraztea falta da. Pentsa zitekeen makinak bere birkonponketarako orduko produkzioaren produktu netoaren zati bat, 12 (= 60/5) minutuko proportzioan hain zuzen ere, hartzen duela. Analsiak, aldiz, beste ondorio batera garamatza: nazio-mailan edo enpresa-mailan edozein kontularik dakien moduan, amortizazioak ez du jaten produktu netoan. Gure etsenpluan, lan-orduaren produktu netoa 10 balio-unitatekoa da —10 alokairu-unitatekoa— eta produktu horren inolako zatirik ez du amortizazioak eskuratzen. Amortizazioa, berak “produkzio-prozesuan” galtzen duen baliotik elikatzen da. Gure kasuan, kapitalak 2 liburuko balioa galtzen du eta balio hori berreskuratzen du, kapitalaren hasierako balioan egindako inbertsioa mantentzearren.

Kapital finkoaren —makinak— amortizazioa langabeziaren adierazpenaren giltza da. Horretarako, amortizazioaren adierazpena sakondu behar da; ikus Tobar-Arbuluren laneko (1999) 8. kapitulua.

Hemen zenbait ondorio baino ez dira aipatuko. Alokairu-unitatea ekonomiak eta zientzia ekonomikoak daukaten neurri bakarra da. Edozein ondasun ekonomikoaren neurri bakarra alokairu-unitatea denez, produktu nazionala alokairu-ondasunek osatzen dute erabat. Badirudi ez-alokairuzko errentak ezin direla existitu. Baina hori okerra da: logikak ez-alokairuzko errentak positiboak izan daitezen ahalbidetzen du. Hemen interesei (eta paraleloki, dibidenduei) dagokiena ikusi dugu. Interesak

nazioaren errentaren zati positiboak izan daitezen, beharrez-koa eta nahikoa da, ikusi dugunez, aurreztaileek alokairu-unitateko kopuru positibo bat gastatzea giza-kiaren lanaren neurri bat erostearren. Beraz, ezin mintza daiteke kapitalaren produkzioaz. Soilik gizakiak produzitzen du, zeren interesak —“kapitalaren produkzioa”— gizakiaren lanaren frakzio bat besterik ez baitira. Amortizazioari dagokionez, ondorio zuzena hauxe da: kapitalak ez du inongo produktu netorik hornitzen, zeren berak bere kontserbaziorako berari egotz dakioken produktua bereganatzen baitu.

## 6. Ekonomia soziala: amortizazioen eta interesen arazoa

Euskal Herriak ospe handia lortu du munduan Arrasateko kooperatibak direla medio (Johnson eta White, 1982; Thomas eta Logan, 1988; White eta White, 1988). Kontua da hori guztia ortodoxiari utsita lortu dela. Arrasateko langileek eta kudeatzaileek ez dute ezagutzen Schmitten teoria, ezta bankugintzari dagozkion aldaketa sakonak ere. Hala ere, beren bidea egin dute (Gezki, 1996).

Oso garrantzitsua da, beraz, langileek berek eraikitako kooperatiben sareari makroekonomia berria aplikatzea. Zentzu horretan, aurreztaileak —“kapitalistak”— langileak berak dira. Interesak eta dibidenduak langileen kapitalari dagozkio. Eta amortizazioa langileen kapital finkoan datza.

Hortaz, produkzioa, moneta, kapitala, mozkinak, interesak, amortizazioak, inflazioa eta langabezia eta banku berriak (beren hiru departamentu bereziekin: monetarioa, finantzarioa eta kapital finkoaren amortizazioari dagokiona) beste modu batez ikusi eta analizatu behar dira; ikus Schmitten lana (1984) eta Tobar-Arbulurena (1999).

## Bibliografia

- Gezki (1996): *Social economy and social participation. The way of the Basques*, Marcial Pons, Madril.
- Johnson, A. eta W. F. White (1982): “The Mondragon system worker production cooperatives”, in F. Lindenfeld eta J. Rosthschild-Whit (arg.) *Workplace democracy and social change*, Porter Sargent, Boston, NY.
- Schmitt, B. (1984): *Inflation, chômage et malformations du capital*, Economica, Paris.
- , (1996): *Cours de théorie monétaire* [argitaratu gabeko kurtsoa].
- Thomas, H. eta C. Logan (1982): *Mondragon*, G. Allen & Unwin, Londres.
- Tobar-Arbulu, J. F. (1999): *Moneta-teoria berrirantz*, UEU, Bilbo.
- White, W. F. eta White, K. K. (1988): *Making Mondragon*, ILR Press, Ithaca, NY.